



**Zestoako Udala**  
**Ayuntamiento de Zestoa**

---

**ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN  
OROKORRA**

2018ko Apirila

---

**HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA**  
*(Hasierako diseinua)*

---

## HIRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

## AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. PARTE-HARTZEA PLAN OROKORRA IDAZTEKO PROZEDURAN ZEHAR.....	1
1. ATALA. KONTZEPTUALIZAZIOA.....	1
2. ATALA. LEGE-ESPARRUA.....	1
3. ATALA. DEFINIZIOA.....	1
<b>II. HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK.....</b>	<b>3</b>
<b>III. AURREIKUSITAKO EKINTZAK (PARTE-HARTZE TRESNAK).....</b>	<b>4</b>
1. ATALA. GAIAREN PLANTEAMENDUA.....	4
2. ATALA. EKINTZEN KRONOGRAMA.....	5
3. ATALA. EKINTZEN DESKRIBAPEN ZEHATZA.....	9
3.1. Txosten-eskaera.....	9
3.2. Landa-lan osagarria tokiko laguntzarekin.....	9
3.3. Elkarrizketa pertsonalizatuak.....	9
3.4. Aurre-galdetegia.....	10
3.5. Dokumentuen eskuragarritasuna udalaren web orrialdean.....	10
3.6. Jarraipen batzarrak tokiko administrazioekin.....	11
3.7. Hitzaldi irekiak.....	12
3.8. Ebaluaketa-lantegiak.....	12
3.9. Hitzaldi-mahai ingurua.....	12
3.10. Dibulgazio-plantxen erakusketa.....	12
3.11. Hiritarrei arreta. aurretiazko hitzordua.....	13
3.12. Laburpen exekutiboa.....	13

---

## HIRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

## I.KAPITULUA. PARTE-HARTZEA PLAN OROKORRA IDAZTEKO PROZEDURAN ZEHAR

### ATALA. KONTZEPTUALIZAZIOA

Hirigintza arloko legezko egitura eta araudia hiritarren parte-hartzera orientatuta dago, bai bera egiterakoan, bai bera aldatzerakoan. Parte-hartzea arlo beraren izaeraren funtsezko osagarritzat har daiteke. Zentzu honetan, hirigintza-antolaketari hiritarren parte-hartzea eta honen adierazgarri diren bideak kentzen bazaizkio, edukirik gabe geratzen da, bera eratu eta osatzen duen funtsa gabe geratzen baita. Era horretan, esan daiteke parte-hartzerik gabe, hau da, herritarren esku-hartze gabe, hirigintza legitimazio gabe geratzen dela.

### ATALA. LEGE-ESPARRUA

Hiritarren parte-hartzea hirigintza plangintza egiterakoan, lehenik eta behin, eskubide bat da konstituzio aurreko hirigintza legediaren denboratik. Ordutik aurrera autonomi erkidegoetako legedi guztiek jaso izan dute. Guztietan hiritarren eskubide bezala asmatzen da, administrazioak bermatu eta bultzatu beharrekoa.

Euskadiren kasuan, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak hirigintza antolaketaren oinarrizko printzipio bezala tratatzen du (8. artikulua, *Herritarren parte-hartzearen printzipioa*), eta egiturazko antolaketa ukitzen duen hirigintza plan bat idazteko orduan ezinbesteko tresna bezala hartzen du (108. Artikulua, *Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa*). Dokumentu honetan izapide honi ekiten diogu, aipatutako araua betez:

*“Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerrriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu.”*

### ATALA. DEFINIZIOA

Hirigintza plangintzak, kolektibitatearen interesen antolaketan eragina izan dezakeen edozein plan edo arau bezala, erabaki politiko bat suposatzen du, eta erabaki honek, arrazoiz, ahal den adostasun handienarekin onartua izatea behar du. Horregatik, legediak hiri-plangintzaren demokratizazioa aipatzen du, bera gauzatzeko bide aproposena bezala, bera egitea bere onarpenerako eskumena duen agintean soilik utzi gabe.

Herritarren parte-hartzea hirigintza aktibitate beraren printzipio bezala egituratzen da hirigintza zuzenbidearen barruan. Administrazioak du bere gain bera gauzatzeko betebeharra, bera gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren bideak antolatuz. Zentzu honetan, ordezkarietako demokraziaren osagarri bezala eratzen da, eta ez honen alternatiba gisa. Horrela izanda, ordezkatuak euren ordezkataileak kontrolatzeko sistema hobetzea ahalbideratzen du.

Edonola ere, hirigintzaren demokratizazioak bere mugak ditu. Alde batetik, hiritarren esparruan, lurraldearen antolaketa eta erabilerari buruzko erabakiak hartzerakoan nagusitu behar diren irizpide eta estrategiak ulertzerako orduan bereganatu behar duen ardura. Beste alde batetik, Udalaren ahalmena hiritarrekin partekatze hirigintza arloak daukan erabakitzeko eskumena.

Zentzu honetan, jurisprudentziak, zenbait epaitan, mugatu izan du parte-hartze eskubidea eta bere norainokoa. Izan ere, oso arrunta da hirigintza plangintza egiterakoan hiritarrek duten parte-hartze eskubidea Konstituzioaren (EK) 23.1 artikuluan hartutako oinarrizko eskubide bezala hartzea. Horri buruz, merezi du uztailaren 17ko 119/1995 epaiaren paragrafo batzuk jasotzea. Ondorengo dio:

*“Egia da jendaurreko erakustaldi izapidearen bitartez nolabaiteko legitimitate bat ematen zaiola hirigintza Planari (nahiz eta ezin ahaztu ere, kasu honetan, legitimitate demokratikoa demokratikoki hautatutako Udal batek onartua izanagatik datorkiola), baina bere azken helburua ez da hautesleriari azken dei bat egitea aurretiaz hartutako erabaki bat berronesteko, ezta erabaki horren azken zentzua zehaztea, baizik eta, hobeto esanda, interesa izan dezaketen edo hala nahi dutenen pertsonak bultzatzea beraien iritsiak adieraztera Administrazioarentzat baliogarri den informazio iturri gisa, era horretan, hartu beharreko neurriaren egokitasun edo aproposasuna ahalbideratzeko; baita ere ukituta suertatu daitezkeen banakako edo taldeko interesak defenditu ahal izateko bide bat ezarri. Interesdun pertsona edo taldeek akordioak hartzeko prozeduran parte hartu ahal izateko dei bat da.”*

Beraz, hirigintza legedian aurreikusitako hiritarren parte-hartzea, eman daitezkeen era guztietan, boterearen jarduketa publikoa kontrolatzeko tresna bat da eta ez kontrabotere bat. Parte-hartzearen helburua administrazioari erabaki ahal izateko elementuak ematea da, baina erabakia halabeharrez eskumena duten organoei dagokie, nahiz eta hauek beti izan beharko dituzten kontutan alegazioak eta iradokizunak aztertu beharreko aukera bat gehiago bezala.

## II.HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

Proposatzen den parte-hartze prozeduraren antolaketaren bitartez, helburu batzuk lortu nahi dira, hauen artean:

Lortu daitezkeen helburuen artean, hauek dira nabarmenenak:

- Hirigintzako dokumentuaren berri ematea bere fase ezberdinetan, parte-hartzea erabat lotuta baitago Planaren egikaritzaren ezagupen publikoari.
- Plana ezagutu eta berari buruzko informazioa jasotzeko hiritarren eskubidea erraztu.
- Plan Orokorra egiterakoan eta tramitatzekoan hiritarrek duten parte-hartze eskubidea sustatu, horretarako beharrezkoak diren partikularren, Udalaren eta Plan Orokorreko erredaktoretaldearen arteko informazio fluxuak ahalbideratzeko erak ezarriz.
- Neurri handi batean teknikoak den dokumentua hiritarrentzat eskuragarri eta ulertzeko erraz egitea.
- Hiritarrek hirigintza arloak izan ditzaketen asmoak, kezkak eta ardurak bideratzea.
- Aukera ematea hiritarrei plangintzaren prozeduran parte hartzeko, beraien iritsia emanez bai Plan Orokorrak proposatutako lurraldearen okupazioari buruz, eta baita ere antolaketa eremu ezberdinei ukitzen dien proposamen eta neurri zehatzei buruz.
- Era xehatuan, parte-hartze prozedurak sustatzeko beharrari buruzko lege-agindua bete.
- Era berean, Herritarren parte-hartze Programak helburu bezala dauka indarreko legedian dokumentuaren publizitateari buruz aurreikusitako tresna eta neurri zehatzei buruzko tresna eta neurriak betetzea (jendaurreko erakustaldi, iradokizun eta alegazio izapideak).
- Indarreko legediaren agindu zehatzak bete, esateko, hirigintza plana baliabide telematikoen bitartez argitaratzeko (estatuko LLTB/08ko 9.2 xedapen gehigarria).

Aipatutako helburuak estrategia orokor bati lotuta daude, hau da, hiritar, eragile eta erakundeen gehiena inplikatzeko Plan Orokorraren erredakzioan. Horren ondorioz, helburu zehatz hauek lortu nahi dira:

- Dokumentuaren idazketa eta asmaketa lehen faseetatik eskumena duten Lurralde-administrazioak tartean sartu. Era berean, ukituta suertatu daitezkeen eskumendun beste herri-administrazioei entzunaldia eman. Honek eragina izaten du beti tramitazio arinago batean bere behin betiko onarpen ordurako.
- Hirigintza-kultura sustatu udalerriko auzokideen artean, era horretan lege-hauste eta hirigintza diziplina-urraketa egoerak saihestu eta zuzentzeko. Zabaldu nahi da hiritarren artean lurraldearen erabilera eta eraikuntza eskubideari buruzko arauak ezarri eta errespetatzeko beharra, gizarte-bizikidetzeta eta bere inguru naturalarekiko hiritarren harremana hobetzeko tresna bezala.
- Adostasun maila handia lortu, ez bakarrik hiritarren artean, baita ere politiko eta erakundeen artean; alde batetik, Udal barruan bertan, osoko bilkuran dauden aukera politikoen artean; beste alde batetik, dokumentuaren idazketa prozeduran zehar eskumena izan dezaketen Aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinetako teknikariek

### **III.AURREIKUSITAKO EKINTZAK (PARTE-HARTZE TRESNAK)**

#### **ATALA. GAIAREN PLANTEAMENDUA**

Helburu eta estrategiei buruzko atalean adierazitako ideiei berriro helduz, interes handikoa da izapide hau aprobeztatzea benetan eraginkorra den parte-hartze prozedura zabal bati ekiteko, era horretan ez bakarrik dokumentuaren edukia hobekuntzan lagunduz baizik eta baita ere bere tramitazioa eta onarpena errazteko. Hori dela eta, proposatzen da parte-hartze programa eta bere proposamenak ukitutako pertsona eta erakundeen arabera asmatu eta bideratzea.

Izapide honek ez du helburu nagusi bezala informazioa edo ezagutza lortzea, nahiz eta hala izan ere, baizik eta arazoak eta eskaerak antzeman eta Zestoako udalerraren etorkizunari buruz erakundeak, hiritar-eragileak, partikularrak eta gainerako parte-hartzaileak ekarri ditzaketen iritsiak, jarrerak eta ikuspegiak mahai gainean jarri. Prozedura erabilgarria eta onuragarria izatea nahi da lortu nahi den helburuarentzat, hau da, udalerraren hiri eta lurralde antolaketa. Horrela, hiru esparru ezberdin proposatzen dira:

- Erakundeen parte-hartzea
- Teknikarien parte-hartzea
- Hiritarren parte-hartzea

Lehenak erakundeen eta udalerrian nabarmen diren elkarten parte-hartzea nahi du, batez ere, tratatzen den gaiarekin zerikusia eta interesa dutenak, adibidez, eta orokorrean esanda, ingurumena babestu eta defendatzeko elkarteak, lanbide-elkarteak, talde politikoak eta gainerako gizarte-eragileak. Zestoako kasuan, hain zuzen, eta ikusita bere tamaina eta kohesioa, ez du beharrezkoa ematen, hasiera batean behintzat, Udal-plangintzarako aholku-batzorde bat eratzea (Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109 eta 110 artikulua), nahiz eta lege aldetik, apropostzat jo ezkerro, posible den bera eratzea. Udalak berak ere parte hartuko du, osatzen duten erakunde ezberdinen bitartez.

Bigarrenak nahi duena, batez ere, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea da, eta baita ere, hala behar izan ezkerro, Mankomunitatearena, eta bere sasoian, baita ere udalerrri mugakideak. Sartu daitezke esparru honetan ere baliabide eta azpiegituren enpresa kudeatzaileak (Uraren Agentzia, Iberdrola, etab.).

Hirugarren esparrua udalerriko hiritar eta interes partikularreko gizarte-elkarteentzat da: kultura eta kirol erakundeak, auzo-elkarteak, hirugarren adinekoak eta abar.

Ekintzarako proposamenak hartzen du, noski, legeak aurreikusitako parte-hartzerako uneak. Hala ere, ikusiko denez, beste proposamen batzuekin osatuz gain, areagotu egiten ditu beraingandik ahal den gehienezko erabilgarritasuna eta eraginkortasuna lortzeko.

Sartzen dira ere parte-hartze programan dokumentuari oihartzuna emateko ekintzak.

Azkenik, proposatutako programak ekintza ezberdinak beraiek gauzatzeko aproposena den unearekin konbinatzen ditu. Informazio eta irizpideak lortzeko ekimenak proiektuaren hasieran kokatzen dira. Adierazleak, baloratzailak eta adostasunekoak erredaktore-taldeak dokumentuak egiterako orduan kokatzen dira.



## **ATALA. EKINTZEN KRONOGRAMA**

Eransten den taulak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egitearen faseak ekintza ezberdinekin lotzen ditu, beraiek gauzatzeko unea denboran zehar kokatuz.

**HIRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA**

ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

ERREDAKZIO-FASEA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK			
	ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA	PARTE-HARTZE TEKNIKOA	HIRITARREN PARTE-HARTZEA	DOKUMENTUAREN PUBLIZITATEA
<b>A-1 Fasea – Herritarrek parte-hartzeko programa</b>		Txostenak eskatu.	<p>Prozedura azaltzeko hitzaldia.</p> <p>Hitzaldi bat egingo da erredaktore-taldeak bere burua aurkeztu ahal izateko eta azaltzeko zer den HAPO bat, zein den Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako prozedura, udalaz gaineko mailako plangintzaren afekzioak, eta abar.</p> <p>Herritarren Parte-Hartze Programaren edukiaren berri emango da eta parte-hartzearen garrantzia nabarmenduko da.</p>	
<b>A-2 Fasea – Informazio eta diagnostikoko dokumentua</b>	Landa-lana tokiko kolaborazioarekin.		<p>Aurre-lanak azaltzeko hitzaldia.</p> <p>Saio bat egingo da udalerraren egoera ikuspegi guztietatik aurkeztuz, ikusten diren gabezia eta behar guztiekin.</p>	
	Elkarrizketa pertsonalizatuak herriaren adierazgarri diren gizarte eragileekin.		<p>Aurre-galdetegia:</p> <p>Hiritarrei egindako inkesta baliabide digital eta postontzi fisiko bitartez.</p>	
	Laneko bilerak.			<p>Laburpena eta oihartzun ematea.</p>
	Egindako dokumentuaren berrikuspena eta ekarpenak.		<p>Ebaluazio-lantegiak:</p> <p>Gutxienez bi lan-saio tematiko Planaren gidalerro nagusiak eztabaidatu eta aztertzeko. Lanerako foro tematikoak eratuko lirateke (etxebizitza, jarduera ekonomikoa, mugikortasuna, hiri-kalitatea, lurraldea, ingurumena, etab.).</p>	<p>Web-ean dokumentuak eskuragarri izatea: HAPOren prozedurari buruzko webgune berezia eta sare sozialetako profila eratzea eta irekita edukitzea behin betiko onarpenera arte, prozedura guztian zehar eguneratua izanez.</p>
<b>A-3 Fasea – Hasierako agiria</b>	Oinarrizko Dokumentu baten eraketa aurreko sintesi txosteneko alternatiba edota erredaktore-taldearen proposamen ezberdinekin, Hasierako agirian eztabaidatu ahal izateko. (Beharrezkoa balitz).			

**HIRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA**

ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

<b>A-4 Fasea – Aurrerakina eta Ingurumen Agiri Estrategikoa</b>	Landa-lana tokiko kolaborazioarekin.		Aurrerakina azaltzeko hitzaldia. Informazio saioa. Zuzendaria, aholkulari juridikoa eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozedurako arduraduna izango dira bertan.	
		Jarraipeneko bilera tokiko administrazioekin.		Informazioa eman hedabideei.
	Laneko bilerak.		Dokumentuen jendaurreko-erakustaldia, gutxienez bi hilabeteko epez	Laburpen exekutiboa eta oihartzun ematea.
	Egindako dokumentuaren berrikuspena .		Hiritarrei arreta. Aurretiazko hitzordua: Jendaurreko erakustaldia irekitzen den lehen egunetik, hala nahi duten hiritarrek alde zuzeneko hitzordua eskatu dezakete erredaktore taldearekin. Eskaerak ikusita, arloka antolatuko dira eta elkarrizketak izateko egun eta orduak emango dira. Gordetzen diren orduei dagokionez, astero 2 egun gordetzea proposatzen da, kontsultaren ohiko eskaeraren arabera banatuak hala ere (kontsulta partikularra hobeto da bideratzea 2 epe osoko erdiko eta azkeneko tartean), ondoko eskema jarraituz: Bertan egoteko uneak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• 5 ordu proposatzen dira, 9etatik 14etara, nahiz eta beharren arabera arratsaldera ere eraman daitekeen (astearen egun batean gutxi gora behera banatuz).</li> </ul> Partikularren kontsultak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguneko 5 ordu proposatzen dira (bataz beste egun 1 astero, baina erakustaldiaren erdiko eta azkeneko tartean kontzentratuta).</li> </ul> Laburbilduz, Aurrerakinaren erakustaldian zehar proposatzen dira (bere iraupena 2 hilabetera lotzen bada 2/2006 Legearen 90. Artikula jarraituz): <ul style="list-style-type: none"> <li>• 16 egun jendeari arreta egiteko bertan egoteko 80 ordu emanaz (bertan egotea eta partikularren kontsultak).</li> </ul> <b>Epe hauek berrikusi daitezke, bai handitzeko bai gutxitzeko, dagoen eskaera ikusita.</b>	Web-ean dokumentuak eskuragarri izatea.
	Dokumentuari buruzko txostena.		Irakurkizunaren aurkezpena eta banakako erantzunen jasotzea	Hitzaldi-mahai ingurua.
<b>B-6 Fasea –Hasierako onarpenerako tramitatu daitezkeen dokumentua egitea</b>	Landa-lana tokiko kolaborazioarekin.		HAPO azaltzeko hitzaldia.	
	Jarraipeneko bilera tokiko administrazioekin.			Informazioa eman hedabideei.

**HIRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA**

ZESTOAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

	Laneko bilerak.		Dokumentuen jendaurreko-erakustaldia, gutxienez hilabete batez.	Laburpen exekutiboa eta oihartzun ematea.
	Egindako dokumentuaren berrikuspena.		Hiritarrei arreta. Aurretiazko hitzordua: Hasierako onarpeneko dokumentuaren erakustaldian zehar ondoko eskema proposatzen da (bere iraupena hilabete batera lotzen bada 2/2006 Legearen 90. Artikula jarraituz): <ul style="list-style-type: none"> <li>8 egun jendeari arreta egiteko bertan egoteko 40 ordu emanaz (bertan egotea eta partikularren kontsultak).</li> </ul> Lana egiteko data zehatzak Udaltzako erabakiko ditu <b>Epe hauek berrikusi daitezke, bai handitzeko bai gutxitzeko, dagoen eskaera ikusita.</b>	Web-ean dokumentuak eskuragarri izatea.
	Dokumentuari buruzko txostena.		Alegazioen aurkezpena eta banakako erantzunen jasotzea .	Hitzaldi-mahai ingurua.

<b>B-8 Fasea –Behin-behineko onarpenerako tramitatu daitekeen dokumentu bat egitea</b>			Behin-behineko onarpenerako idatzitako dokumentua azaltzeko hitzaldia.	Web-ean dokumentuak eskuragarri izatea.
--	--	--	--	---

<b>B-9 Fasea – Behin betiko onarpenerako tramitatu daitekeen dokumentua egitea</b>				Informazioa eman hedabideei
		Jarraipeneko bilera tokiko administrazioekin.	Behin-betiko onartutako dokumentua azaltzeko hitzaldia.	Laburpen exekutiboa eta oihartzun ematea.
				Web-ean dokumentuak eskuragarri izatea.

## **ATALA. EKINTZEN DESKRIBAPEN ZEHATZA**

Ondoren deskribatzen dira zehazki aurreikusitako ekintzak:

### **1.1. TXOSTEN-ESKAERA**

Berrikuspenean kontutan hartu beharreko gai eta ikuspegiak zuzenean ezagutu ahal izateko, Indarreko legedia jarraituz, babes zibila, ingurumena, kultura-ondarea eta ingurumen naturalari buruzko eskumenak dituzten Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako organoei eta beharrezkoak diren administrazioei (aire-administrazioa, etab.) informazioa eskatuko zaizkie antolaketak kontutan hartu beharreko arrisku eta ingurumen eta kultura-ondare eta natura ingurumenari buruzko arriskuei buruz.

Aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, beharrezkoa izan daiteke aurreko txostena eskatzea ondoko eskumenak dituzten sailei:

- Lurralde-antolaketa.
- Ingurumena.
- Kultura eta Ondarea.
- Herri-lan eta Garraioa.
- Segurtasuna eta Babes Zibila.

Aurrerago eskatuko da informazioa ondoko erakunde hauei ere:

- Hornidura, saneamendu, energia elektriko, telekomunikazio eta gasa, uren administrazioa eta abar kudeatzen duten erakunde arduradunei.
- Komunikazio azpiegituren kudeaketaren erakunde arduradunak.

Kontsultak era ofizialagoan egiteko, Udalak erakunde sustatzaile bezala egitea proposatzen da, erredaktore-taldearen erreguz.

### **1.2. LANDA-LAN OSAGARRIA TOKIKO LAGUNTZAREKIN**

Tokiko erakundeek edo pertsona adierazgarriek duten inguruaren ezagupenak gomendatzen du jardunaldi bat edo gehiago zuzentzea ondoko gau hauek hobeto zehaztera: eraikinen okupazio/erabileraren egoera, arkitektura eta ondare ondasunen berrikuspena (ikusiz beste batzuk sartu behar diren ala ez) eta paisaia eta estetika ikuspegien balorazio eta kritikak.

Tokiko kolaboratzaileekin oinezko ibilbideak egitea proposatzen da, beharrezkoak diren jardunaldietan, era horretan esandako kanpoko lana gauzatu ahal izateko.

### **1.3. ELKARRIZKETA PERTSONALIZATUAK**

Udalerriaren gaur egungo egoerari buruzko analisi eta balorazioen elkartrukatze bat da, baita ere etorkizunerako ikuspegiarena, erredaktore-talde eta beraien garrantzi edo oihartzunagatik erakunde adierazgarritzat jotzen diren tokiko eragileen artean.

Elkarrizketatu beharreko eragileen zerrenda ondoko hau izan daiteke, era orientagarrian eta Udalarekin batera behin betiko zerrenda egitekoaren zain:

- Udal taldeak (banakako elkarrizketa).
- Udal langileak (idazkaria, arkitekto, arkitekto teknikoa, etab.).
- Kultura elkarteak
- Kirol elkarteak
- Ekonomi arlokoak (zerbitzuak, nekazaritza eta abeltzaintza eta industria)

Elkarrizketa eta galdetegiak erredaktore-taldeak prestatuko ditu. Merezi duen formaltasuna eman ahal izateko, Udalak egingo du elkarrizketetarako deialdia eta galdetegiak bidali.

Pertsonalizatutako elkarrizketetarako tokia Udalak jarriko du eskuragarri erredaktore-taldearentzat.

#### **1.4. AURRE-GALDETEGIA**

Udalaren web orrialdean edozein hiritarrek era ireki eta interaktiboan erantzuteko galdetegi bat eskuragarri izatea proposatzen da. Bere edukia erraz aurkitu eta ulertzekoa izango da.

Erredaktore-taldeak bere gain hartzen du aurre-galdetegi honen edukia lantzea, baita ere bere emaitzen balorazioa eta sintesia egitea. Programatze, ezartze, mantentze, iraultze Informatika-lanak edo proposamen hau abian jarri eta garatzeko beharrezko izan daitekeen beste edozein prozedura Udalaren kontura izango dira.

#### **GALDETEGI-PROPOSAMENA**

Galdetegi orokorrean udalerriri buruzko ondoko ikuspegiak komentatu daitezke:

- Ikuspegi sozio-ekonomikoak:
  - Biztanleri eta motari (lehen edo bigarren egoitza) buruzko aurreikusi daitekeen garapena.
  - Ekonomia-jarduerak: aukera berriak eta iniziatibak.
- Funtzio printzipal eta azpiegituratatik ondorioztatu daitezkeen ikuspegiak:
  - Etxebizitza eta babeseko etxebizitzak.
  - Ekipamendu eta zerbitzu ezberdinak.
  - Hiriko trafikoa. Aparkalekuak. Garraio publikoa.
- Jasotako ondarearen gordetze eta hobetzeari buruzko ikuspegiak:
  - Ingurumena. Gune libre naturalak.
  - Arkeologia.
  - Dagoen ondare eraikia.
  - Hiriaren akaberak: zoladura, tresneria, arboladia, argiteria.

Iritsien ematea sustatuko da ondokoa jarraituz:

- Dagoen eta aurreikusi daitekeen arazoen zehaztea.
- Lortu nahi den egoera.
- Lortu nahi den egoera lortzeko antolatu beharreko ekintzak.

Nolanahi ere, interesatuak alternatiboki bere txosten pertsonala egin dezake bere ustez erredaktore-taldeak kontutan hartu beharreko bere intereseko ikuspegiekin.

#### **1.5. DOKUMENTUEN ESKURAGARRITASUNA UDALAREN WEB ORRIALDEAN**

Planaren lan eta dokumentu ezberdinen ezagutza errazteko, beraien ezarpena proposatzen da udalaren web orrialdean, beraiek deskargatzeko aukera emanez. Hain zuzen, ondoko dokumentazio hau egon beharko litzateke eskuragarri:

- A-2 Fasea den Informazio eta diagnostikoko dokumentua bukatzerakoan:
  - Informazio txostena
  - Informazio planoak
- A-3. Fasea den Hasierako agiria bukatzerakoan:

- Agiri osoa
- A-4 Fasea den Aurrerakina eta Ingurumen Agiri Estrategikoa bukatzerakoan
  - Memoria
  - Planoak
  - Ingurumen Agiri Estrategikoa
- B-6 Fasea den Hasierako onarpenerako tramitatu daitekeen dokumentua egitea bukatzerakoan
  - Antolaketari buruzko memoria
  - Antolaketa planoak
  - Araudi orokor eta xehatua
  - Katalogoa
  - Ordenantzak (hala balitz)
  - Ekonomia eta finantzako azterlana
  - Ingurumen Agiri Estrategikoa
- B-8 Fasea den Behin-behineko onarpenerako tramitatu daitekeen dokumentu bat egitea egiterakoan
  - Antolaketari buruzko memoria
  - Antolaketa planoak
  - Araudi orokor eta xehatua
  - Katalogoa
  - Ordenantzak (hala balitz)
  - Ekonomia eta finantzako azterlana
  - Ingurumen Agiri Estrategikoa
- B-9 Fasea den Behin betiko onarpenerako tramitatu daitekeen dokumentua egitea bukatzerakoan
  - Antolaketari buruzko txostena
  - Antolaketa planoak
  - Araudi orokor eta xehatuak
  - Katalogoak
  - Ordenantzak (hala balitz)
  - Ekonomia eta finantzako azterlana
  - Ingurumen Agiri Estrategikoa

Erredaktore-taldea behartzen da dokumentazioa helaraztera arrunta eta erabiltzeko erraza den pdf formatuan.

Programatze, ezartze, mantentze, iraultze Informatika-lanak edo proposamen hau abian jarri eta garatzeko beharrezko izan daitekeen beste edozein prozedura Udalaren kontura izango dira.

## **1.6. JARRAIPEN BATZARRAK TOKIKO ADMINISTRAZIOEKIN**

Plan hau bezalakoa idazterakoan ikuspegi garrantzitsuenetako bat zera da: berak ukitutako eta, gainera, bera behin betiko onartzeko eskumena duten lurralde-administrazioak dokumentua ahal den goizen ezagutzea. Legeak ezarritako izapideen sekuentzian ez da aurreikusten administrazio hauek parte-hartzea nahiko fase aurreratu bat heldu arte (zenbait kasutan, behin-behineko onarpena). Hori dela eta, aldizkako eta gai zehatzeko azalpen-batzarrak egitea proposatzen da Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako hirigintza eta lurralde-antolaketa teknikariek.

Ingurumen Azterketa Estrategikoaren (IAE) kasuan proposatuko da ere Ingurumen sailtako teknikariek batzartzea, aurrekoekin bat etorri ahal bada.

Proposatzen da ere beste sail batzuekin (Kultura, Herri-lan saila) batzartzea, hori beharrezkoa egiten duen edozein gai, proposamen edo arazo gertatzen denean.

Saio bakoitzeko akta bat egingo da.

### **1.7. HITZALDI IREKIAK**

Udal mailan egiten den idazketa fase bakoitzaren hasierarekin bat etorritik publikoari irekitako hitzaldiak egitea proposatzen da.

Ondoko materiala prestatuko da:

- Kartelak egitera Planaren adierazgarrien diren elementuak adierazteko.
- Planaren zehaztasunen sintesi planoak.
- Plana osatzen duten dokumentuen kopia oso bat.
- Dokumentu digitala erakusketan proiektatzeko.

Udalak bere gain hartuko ditu eginkizun hauek:

- Egin beharreko erakusketa eta hitzaldiak burutzeko lokala jarri, eta dibulgaziozko materiala behar bezala antolatzeko beharrezkoak diren euskarri eta egiturak.
- Ekintzak iragarri eta argitaratu.
- Erakusketak prestatzeko laguntza eta logistika eman.

### **1.8. EBALUAKETA-LANTEGIAK**

Gai edo arlo zehatz bati buruzko saioak dira, Planaren ardatz nagusiak eztabaidatu eta aztertzeke. Arlo bakoitzeko foroak eratuko lirateke (etxebizitza, jarduera ekonomikoa, mugikortasuna, hiri-kalitatea, lurraldea, ingurumena, etab.). Gonbidapena luzatzen zaie parte-hartzaileei hausnarketa egiteko eta proposamenak eta alternatibak egiteko, gero lan-mahai horretan eztabaidatzeko. Honekin lortu nahi dena herritarren parte-hartze aktibo bat da.

### **1.9. HITZALDI-MAHAI INGURUA**

Hiritar orori irekitako zenbait hitzaldi-solasaldi egiteko aukera planteatzen da. Beraien asmoa da hiritarrei hurbiltzea beraien udalerrian Plan Orokorra duen papera, finkatzea nolakoa izango den bere parte-hartzea dokumentua egiterakoan eta bere edukia aurkeztea. Horretarako une aproposa izaten da jendaurreko-erakustaldien irekiera aprobetxatzea.

Erredaktore-taldeak dokumentazio, panel eta gainerakoen proiektzioak prestatuko ditu. Hitzaldi-solasaldirako lokala eta baliabide teknikoak Udalak jarriko ditu eskuragarri erredaktore-taldearentzat.

### **1.10. DIBULGAZIO-PLANTXEN ERAKUSKETA**

Udalerriko biztanleri orori zuzendua dago eta udalerriko Plan Orokorra ulergarriago egitera zuzendua dago. Plantxa hauen asmoa da Plan Orokorren idazketa eta tramitazio prozedura hurbiltzea hiritarrei, hauek bera ulertu ahal izateko eta bereganatzeko propio bezala udalerrarentzat aproposena den hiri-ereduaren zehazketa.

Plantxa hauen bidez oinarrizko datuak ezagutu daitezke, hauen artean, Planaren elaboratze-faseak eta, garrantzitsuago oraindik, zeintzuk dira PARTE-HARTZEAREN une erabakigarriak, bere maila



ezberdinetan, Plana aurrera doan adina.

### **1.11. HIRITARREI ARRETA. AURRETIAZKO HITZORDUA**

Hirigintza legediak Planaren jendaurreko erakustaldiak egitera behartzen du, bai Aurrerakin dokumentua aurkezterakoan, bai dokumentuaren hasierako onespeneren ostean. Bi une hauetan parte hartzen du publikoak "iradokizun" (Aurrerakinean) eta "alegazioen" (Planaren hasierako onespeneren) bitartez. Parte-hartze hau irekia dago edozein hiritar edo erakunderi.

Izapide hauekin batera proposatzen da erredaktore-taldeak bertan egotea zenbait saiotan; batez ere Plan Orokorren arkitekto koordinatzailea eta hirigintza-abokatua. Hala ere, baloratuko da ea komenigarri den erredaktore-taldeko beste kide batzuek bertan egotea ere (IAE, mugikortasun edo zarata arloko arduradunak) egon daitezkeen kontsultei erantzuna emateko.

Horrela, beste Plan Orokor batzuk idazterakoan izandako esperientzian oinarrituta, erredaktore-taldearen presentzia tokian bertan pertsonalizatua izatea proposatzen da. Jendaurreko erakustaldiaren irekiera egun beretik hasita, hala nahi duten hiritarrek erredaktore-taldearekin hitzordua eskatu ahal izango dute. Gero, jasotako eskaerak ikusita, hitzordua emango zaio hiritar bakoitzari banan-banan, eguna eta ordua zehaztuz, eta elkarriketak beharrezko epean zehar zabalduz. Zentzu honetan, uste da elkarriketa bakoitzaren batz besteko iraupena 20 eta 30 minutu tartean dagoela.

Planteamendu honekin, prozedura hau jendaurreko erakustaldiaren hasierako egunekin bat etortzea espero da.

Proposamen honek nahi duena da, alde batetik, eskatzen diren kontsultak, iradokizunak eta informazioak pertsonalizatzea. Bestetik, parte-hartze prozedurari arrazoizko irizpide bat eman, pilaketak, itxaron beharrak eta deserosotasunak eragotziz hiritarrei.

### **1.12. LABURPEN EXEKUTIBOA**

Dokumentuaren eskuragarritasuna eta ulerpena errazteko, batez ere argitaratze eta jendaurreko erakustaldi uneetan, Planaren laburpen exekutibo bat egingo da (2/2006 Legearen garapenerako Premiazko Neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 32. artikulua), erabat laburbildutakoa. Bere asmoa dokumentuaren ulerpenerako aldi berean eraginkor, sinple eta azkarra den laburpen bat ematea da. Beraz, ez da izango dokumentu luze bat eta trinkotu ahal izango da, esateko, dibulgaziozko liburuxka batean.

Lortu nahi dena zera da: Planak garatutako ideia eta irizpideak sistematizatzea eta planteatutako guztiaren ikuspegi orokor bat ematea.